[b] BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
552. zkia.
XIII. urtea
2005eko azaroaren 25a



## Hasier Etxeberria, idazlea

# «Beti saiatzen naiz nire bizitzako gauzak nobeletan sartzen»

[ KILIBARREN ] IKER MAYORA • [ KIROLA ] KARAKATERAKO IGOERA


Jostailuen erakusketa gidatua
Egunak: abenduak 1, 2 eta 3 (osteguna, ostirala eta larunbata)
Ordutegia: osteguna eta ostirala: 17:00- 20:00 larunbata: 11:00 -14:00
Lekua: Kultur Etxeko Sotoa
Antolatzaileak:
ELGOIBARKO IZARRA
Laguntzaileak:
Elgoibarko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza


2006ko Gida Komertziala
Elgoibar, Altzola eta Mendaro
Iazko gidan zure etxeko edo negozioko telefonoa agertu ez bazen, 3 aukera dauzkazu:
• Telefonoz, 943 74 37 04 zenbakira deitu.
• E-postaz, barren@elgoibarkoizarra.com helbidera mezu bat bidali.
• Fitxa bete eta BARREN-ek Nafarroa Enparantzan daukan lokalera ekarri.
GIDA
05
Izena:
1. abizena:
2. abizena:
Helbidea:
Telefonoa:



# ZOZOAK BELEARI...



## Iban Urizar

Mikele!!

Orain dela egun batzuk egunkarian irakurri nuen, iparraldeko gazte bati 700 euroko isuna ezarri diotela musika "ilegalki" jaisten ibiltzeagatik.

Duela pare bat hilabete, tabernan lanean negoela, komertzial itxurako gizontxo bat sartu zen ea minutu batzuk eskaintzen nizkion galdezka. SGAErako ikerketa bat egiten omen zegoen eta egunean zehar jarritako diskak erakusteko arazorik neukan galdetu zidan. Ezezkoa erantzun nion, ez niola diskorik erakutsiko, eta gainera arrazoiarekin.

Ez neukan diskorik erakusteko, Mp3 aparatotxo baten barruan zegoen nire musika guztia. Ez dut gustoko SGAEren politika, eta beharbada horregatik ez nion inongo laguntzarik eskaini gizontxo hari. Gai hoietan jantzia nengoela erakutsi ondoren, buelta eman eta etorri zen bide beretik aldegin zuen.

Oso argi daukat SGAEren izatea arrazoi ekonomikoek bultzatzen dutela, eta demagogo itxura hartzen badut ere, merezi du kritikatzea. Neuk beste zerga klase bat planteatuko nuke. Pagatzea, baina nahi ez dugun musika hori ez entzutearren, ea horrela balantza orekatzea lortzen dugun.

P.D: Zure aparatotxoa izorratuta omen daukazu ez? Tabernako giroa desberdina izango da orain C69rik gabe.

> **«SGAEren izatea arrazoi ekonomikoek bultzatzen dute»**
>
> Iban

> **«Piratak musika garestitzearen aurkako erreakzioa dira»**
>
> Mikel

## Mikel Kornejo

Kulturaren polizia, Ibane!

Kulturak ere ba ditu babesleak, baina zer babesten dute? Dirua, noski! Polizia, hein handi batean, ondasun materialen jabetza defendatzeko dago, etikarekin zerikusi handia izan gabe sarri. Ez al da ba kultura ondasun unibertsala?

Bi gertaerek musikaren industriaren oinarriak kulunkan jarri dituzte: piratek eta Mp3-ak.

Piratak musikaren garestitzearen aurkako erreakzioa dira, jendeak ez du sekula hainbeste musika hain eskuragarri izan. Hala ere, hauen atzean kulturalak ez diren indar ilunak daude...

Eta Mp3a? Lehenengo diskak arbelez eginak zeuden, gero biniloa, kasetea, CDa etorri ziren eta, azkenik, Mp3-a. Desberdinasunak? Gela oso bat betetzeko adina diska eskuartean eraman ditzakegu. Musikaren maitaleen ametsa!

Internet erabiliz, gizabanakoak bere musika mundu osoko beste gizabanakoekin parteka dezake, ez al da ba hori musikaren unibertsalizazioa? Sortzaileen interesak babestu behar dira, ez piratengandik, ordea, multinazionalengandik baizik.

Hala ere, bada gure mundu honetan sabela zerekin bete ez duela ahazteko kantuan ariko denik ere...

P. D.: Ibane, moderno, CDak ez dira oraindik desagertu...!

---

> ABERASTEKO ANBIZIOA DA PROBRETASUNAREN ZERGATIRIK HEDATUENETAKO BAT
>
> Tacitus

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, bestea-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Sufrimendu gehiagorik ez!

Lerro hauen arrazoia "Elgoibarko Ezker Abertzaleari" (EEA) Elgoibarren soberan daukagun sufrimendua gehiago areagotu ez dezala eskatzea da. Zergatik?: Jaime Arreseri buruz idatzi zuen eskutitz krudelagatik. Zer dela eta?: Joan den asteko Aitorren eskutitzak hunkitu ninduelako... Eta hunkidura horrek... sentimenduak, gogoetak, azken finean, oroimena ernetu dit.

Urriak 23, 1980, 13 urte ditut. José Luis (Jaimen iloba) nire ume denborako laguna ta bixok ikastolako gela hartan. Maisu bat sartzen da, zerbait esaten dio. José Luis negarrez ateratzen da. Isiltasuna. Herioren segakada. A ze kolpea! A ze tristura!

1988, 21 urte. Lagunarte berria. Gazte Asanblada ta Talde Antimilitarista. HIESak hamarnaka gazte hil ditu herrian. Lagun dexente kutsatuak. Kutsadura galant horretan Udaletxeak ardura haundia dauka, farmazietan xiringen salmenta galarazi zuelako heroinaren urteetan. Gorrotoa. Gorrotoa lagunek, gorrotoa nik. Gizartea gezur handi bat da! Sistemaren aurkako borroka armatu guztiak zilegi dira! Elgoibarko Herri Batasunak Udaletxera aldarrikapenak eramaterakoan, jasatzen dugun errepresioari aurre egiterakoan, asko laguntzen digu. Komite Lokalarekin harreman hurbila dut. Eginen Deba Beheko kazetari izatea eskeintzen didate. Nik onartu. Esperientzia oso positiboa. Harreman hurbila estua bihurtzen da, lagunak egiten ditut.

2005eko azaroa, urte asko pasa da, kontraesan guztien gainetik Elgoibarko Herri Batasunarekiko esker ona sentitzen dut. Baina, behin eta berriro karta honetan gorrotoa sumatzen diet. Orduan, esker onarekin zer egin? Zer egin sentimendu guzti horiekin? Posible al da Jaime Arrese eta bere sendiagatik tristura izan, geroago borroka armatuaren alde egon, HBrekiko esker ona sentitu, eta orain hilketa "politikoak" ez direla politiko, hilketa soila baizik ozenki esatea? Bai, posible da.

Honen azalpena ezin da EEAk aipaturiko gertaera historikoen zerrenda abstraktu horretan bakarrik aurkitu. Horretarako historia txikietara jo behar dugu. Horiek aldarrikatzera nator orain eta hemen. Prozesu politiko batetik, alderdi politiko batzuren tratutik, etorriko dela bakea? Dudarik gabe! Hala bedi! Nik, halere ez dut itxaropen handirik, erdipurdiko politiko asko ikusten ditut eta tartian jakinduriaz hitz egiten duen gutxi. Bitartian, zer egin dezakegu denok? Gehiago isildu (eslogan harroputz eta hutsalak sarriago gorde) eta sufritzen duenari entzun. Denok garelako biktima. Berriro ez dudalako elgoibartar bat kartzelan usteltzen ikusterik nahi, berriro ez dudalako elgoibartar bat odol putzu baten gainean zerraldo ikusterik nahi.

**Iñaki Kortabitarte Sorazu**

## Behobia-Donostia

Egunero, denbora pixka bat dudanean, Elgoibarko tabernetan izaten ditugun egunkariak irakurtzeari ekiten diot. Joan zen asteko asteleheneko egunkari guztiei begirada bat bota nien, kirol arloa ikusi nahi bainuen. Baina nire harridurarako ez nuen nik nahi nuen informaziorik aurkitu. Ostirala heltzean BARRENa hartu eta gauza bera bilatzen hasi nintzen. Kirolen sailera iritsi eta Behobia-Donostia lasterketan parte hartu zutenen izenak topatu nituen. Baina izen bat faltan.

Txikitatik pertsona desberdinen artean bereizitasunik ez dela egin behar irakatsi digute, denak berdinak garela mundu honetan, arraza, ezintasun edota arazo desberdinen aurrean. Baina zergatik ez ditugu pertsona guztiak berdin tratatzen? Askok ez duzue gutun hau ulertuko, baina beste askok bai. Behobia-Donostian parte hartu zuten izen guzti haien artean elbarritu askoren izenak falta ziren, egia esan, lehenengoa bakarrik aipatzen baitzen egunkarietan. Baina gure herrian horren ezaguna egin den pertsona, zer? Honen izena non azaltzen zen? Beste askok baino meritu handiagoa daukate horrela dauden pertsonek, beraien arazoak alde batera utzi eta eskuen indarrez horrenbeste kilometro egitea ez baita hain erraza. Badakit horrelako kasuren bat gertu eduki arte ez garela konturatzen, baina, bada ordua! Ba zuen informaziorako, Igor Elizburu oso denbora onean sailkatu zen. Bere modalitatean bera izen zen lehenengoa, hand-bike modalitatean. Denbora ezin dut aipatu, ez baitut inon ere aurkitu informazio hau. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduna da bera, iraila aldera Andoainen egindako proba batean bigarren urtez lortu baitzituen goraipamenak.

Ez al da ordua denetaz gogoratzeko? Animo, txapeldun!

**M.O.A - 15396697Z**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Eider Iriondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.410 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

DANOBAT
GOITI
ESTARTA
Kondia
gizarte ekintza



## GALDERA

• Noizko egongo dira prest Ubitarteko Babes Ofizialeko Etxebizitzak? Duela urtebete baino gehiago egin zen Ubitarteko Babes Ofizialeko Etxebizitzen zozketa, eta etxea tokatu zitzaienek oraindik ez dakite nolako etxebizitza izango duten. 2007. urterako etxeak amaituta egongo zirela esan zuten zozketa egunean. Bertan ziren Etxebizitza Sailburua eta Elgoibarko Alkatea, baina orain inon ez omen diete informaziorik ematen. Udaleko Hirigintza Sailera deitu dugu, eta esan digutenez, "Santa Ana kaleko errotondatik San Roke auzora egingo duten pasabidea bukatu arte ez dira ondorengo obrak hasiko". Ez digute datarik eman, beraiek ere ez baitakite.

## TXALOAK

• Herritar batek Elgoibako Ezker Abertzalea txalotu nahi du, Jaime Arreseren figura historikoki kokatu duelako: "Senideen samina errespetatuz, esan beharra dago ez zela izan alkate demokrata bat (Herriak ez baitzuen hautatu). Ez zen frankista? zer orduan, komunista? eta bere lagun Oreja troskista? UCDko agintari guztiak *Movimiento Nacional*ekoak ziren, frankistak alegia. Aspalditxo honetan *eusko-guay* asko dabil Ezker Abertzaleari kontuak eskatzen; beraien porrot ideologiko zein politikoa ezkutatu nahian. Amorruz eta urduri daude, beraz, ondo goaz. Noizko BARRENen Frankismo garaian afusilatuak izan zirenei buruzko erreportaje bat? 20tik gora dira. Edo gertaera haiek ahaztu egin behar dira? Batzuk bai eta besteak ez? Noiztik hasten gara hildakoak kontatzen? Besarkada handi bat Juan Mari eta 18/98an prozesatuta dauden abertzale zintzo guztiei".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

• Herritar batek Aitor Zabaleta Arrieta txalotu nahi du: "Aitor Zabaleta Arrieta txalotu nahi dut oso ondo azaldu zuelako nor zen Jaime Arrase; euskaldun jatorra eta langilea. Eta zer esanik ez bere emaztea eta semeak. Nire lagun handiak, abertzale eta euskaldun zintzoak eta jatorrak".

• Musika zale batek Udal Musika Banda txalotu nahi du: "Igandeko kontzertua ederra izan zen benetan, txaloak baino gehiago merezi zituzten, baina guk ezin gehiago eman. Musikari bakoitza bere paperean sartuta egon zen. Bitaminak hartuta bezala atera ginen kontzertutik. Zorionak denori, eta igandean denok Eibarrera, han jotzen dute-eta".





**ESKERTZA**

2005eko azaroaren 19an hil zen
*Jose Zabala Aramberri*ren
anai-arrebek, ilobek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





URRUZUNOREN luma

## Itxaron, antxintxika egitera noa

*Gizarte honek presaka garamatza, arnas estuka batetik bestera.*

*Baina ihes egin diezaiokegu bere erritmo markatuari, antxintxika eginez adibidez. Forest Gumpen tankeran, gorputza martxan jarri burua lasaitzeko. San Lorentzo zein Maltzagara, edo Behobiatik Donostiara.*

*Aparta da Behobiak eskaintzen duena. 10.875 kiderekin elkartu eta gustura sentitzen da bat Euskal Herriko sirimiriak nola bustitzen duen sentitzen, izerdi tantak euri tantoarekin bat egin eta sudurretik beheranzko bidaia nola hasten duen ikusiz. Gaintxurizketa parez pare topatzean bide bazterreko koadrilaren animoak, edo Trintxerpeko txistularien ongietorria, albokoaren keinua, bestearen irribarre estutua, irrintziak eta txaloak∑*

*Gizarte nahasi honetan korrika lasaitu eta indarberritzerik bada, segundo, minutu eta orduen etengabeko igaro azkarraz ahantziz.(Bulebarreko helmugara iritsi eta kronometroa gelditzeaz ahazteraino!!).*

***Oihana Apellaniz***



BAT ESAN?

**AMAGOIA RUIZ DE GAUNA**

GIZARTE LAGUNTZAILEA

*Azaroak 25; Emakumeenganako Indarkeraiaren Aurkako Eguna.*

• **Zer egin tratu txarren aurrean?** Tratu txarrak jasaten badituzu (mehatxuak, lagun edo senideekin egotea galerazi, dirua erabiltzeko oztopoak, jo, sexu-harreman behartuak...) ez geratu isilik. Konfidantzazko pertsona bati esan eta laguntza eskatu. Lesio fisiko edo psikikorik baduzu, osasun zentrora joan. Udaleko Gizarte Zerbitzuetan informazioa eta doako laguntza emango zaizu; juridikoa, psikologikoa, ekonomikoa, babes etxeak, e.a. Harremanetarako: 943 74 10 08 (Lorea eta Amagoia). Gizarte Zerbitzuak ez dauden orduetan Gipuzkoako Larrialdeetarako Foru Zerbitzura deitu (943 22 44 11). 15:00etatik 20:00etara. Zapatu eta jai egunetan egun osoan. Salaketak polizian jarri behar dira. Larrialdiak 24 orduz, 112 zenbakian.

• **Zenbat kasu izan ziren iaz Elgoibarren?** Kopurua jakitea zaila da, darabilgun informazioa guregana iristen diren emakumeena da, baina argi dago bidean emakume asko geratzen dela. Gure zerbitzuan eskaintzen den Bizikidetza eremuko tratu txarrak, edo, sexu askatasunaren aurkako delituen biktimentzako laguntza psikologikoko programan, 6 emakume elgoibartarrek parte hartu zuten 2004an. Gipuzkoan (2004) 235 kasu atenditu ziren. Horietatik 107k denuntzia jarri zuten; %45,5a. 2003an %34,6a izan zen. Adinari dagokionez, Gipuzkoan, gehiengoa 30–39 urte bitarteko emakumeak izan dira.

## komikia

Hil da gero... Ortega Cano banderillero




Kokoz 039

# [AKORDATZEN NAIZ]



## MANOLO UNZILLA

1924an jaioa

## «Pelotia»

Pelotan ere ondo. Koadrillan ixa danok izan gera onak; anaixa eta. Orduan hamen pelotan danak egitten zaben ondo. Eta frontoia, hartu ezinda, txandaka. Orduan errespetau egitten zan txandia, baiña ondo errespetau, eh! Orduan zaguan "Pitxirri", Gerardo Arriola, eta haren anaixak, Bizentek, eta bixak pelotak egitten sitúen, eta erostera (edo alkilatzera) juten giñan. Erriala edo 20 zentimo ordu t'erdirako.

Plazan. Frontoian, egun guztixan zabizen pelotarixak, minutu bat ere ez zaguan hutsikan, goizetik gabera arte. Eta gero, gaiñera, illuntzixan ba honek profesionalak Eibarkuak Estarta, Zabala, Sol-en aittitta... horrek ziran hemen onak, eta jende guztixa, horrek ikustera. Temia zaken bata bestian kontra. Dirurik jokau batere ez, baiña letxia... Askotan txaketia hartu, eta ihesi etxera, hasarrauta han frontoian. Zan ikustekua! Pundonorra kristona zaken.

Han mundu guztixak jokatzen zaban pelotan.

Oingua da rarua, hamengua, frontoia beti hutsikan, raketekin, bestiekin... eta eskuz, iñok ez. Ikarauta nago hamengo gazterixiakin. Orduan ez zaguan eskolarikan. Lehen bi ordu goizian eta bi arratsaldian, eta libre. Ez zaguan notak etxera eruan biharrik eta. Gero, musikia, inglesa, frantsesa... oingua da zoratzekua. Billobak ikusten dittut etxian, eta bueno! Bizimodua diferentia zan.

Orduan dirurik ez: hori zan problemia. Zinera juteko, nere amama arraindunа zan, eta Eibarren saltzen zaban Ondarrutik ekartzen ziuen arraiña. Betiere amaman mantala ate ostian zaguanian, nun harrapauko erriala zinera juteko-edo, hara juteko ez zaguan dirurik orduan-eta. Halakuak asko egin dittugu, halakuak. Gure bankua amama izan da beti. Beti amamari erriala edo bestia hartu; beti hari. Gogorra zan haura, amama.

**«Oingua da rarua, frontoia beti hutsikan, raketekin, bestiekin... baina eskuz iñok ez»**

# [GURE BERBAK]

## Esapide adierazgarrixak (9)

Gaurkuan beste esapide saill bat. Ikusten dozuen bezela, era honetako esapide indargarriz jositta dago gure hizkuntzia, betiere mesedegarri izango jakuzenak gure jardunari naturaltasuna eta bizittasuna emateko.

*- Galanki edan jok Patxik, jausi biharrian dabik barren!*
*- Gerrian berri baldin badakik, ez haiz hi ere oingotxia!*
*- Eskapadia egin juagu oiñ ere kotxiakin: errekara jun ez geranian!*
*- Neguan leku txarra da hori, kontrasola, hor ez da eguzkirik sartzen, eh? San Josiak arte, akabo eguzkixa!*
*- Jun dok neskia, eta hau eta hau eta Jesukristonak esan jauek. Ta esan jauek "ignorante", ta Kristonak esan jauek.*
*- - Guri tokau jaku ikastia, aukeria eukitzia. - Klaro, hori diperente da. Oingo gaztien bizimodua ta lehenguena dipe(r)entia da.*
*- Ni ez nitzan jausi kontuan, errekia bai behian, baiña gu zubixan gaiñian. Pasau giñanian beste aldera, Aiba dios!, beittu dot, eta arku bat bakar-bakarrikan.*
*- Kostia kosta, lan hau amaittu egin bihar juagu!*
*- Ez idak lanik eman! Laga idak pakian! Lehen jakat nahikua dakatenakin eta!*
*- - Badator ekaitza! – Bai, larri ibilli!*

*Jesus Mari Makazaga*



**X. URTEURRENA**

1995eko azaroaren 28an hil zen

*Juan Carlos Fernandez*

***Hamar urte, Juankar zu gabe...***

***ZURE LAGUNOK EZ ZAITUGU AHAZTEN.***



## HASIER ETXEBERRIA IDAZLEA

# «Nobeletan errealitatea eta fikzioa nahastea da gehien gustatzen zaidana»

*Hitz egin ezin duten arren, mutuek asko dute esateko. Horregatik, Hasier Etxeberriak bi urtez ixilik eduki duen Damian Arruti pertsonaia berreskuratu du "Mutuaren hitzak", bere azken liburuan. "Eulien bazka" eleberria bukatzen den toki berean hasten da oraingo honetan Damian Arrutiren abentura. Azken liburu honetaz aparte, hamaika saltsatan sartuta dago Hasier Etxeberria. Besteak beste, Jakin aldizkarian Gotzon Garateri buruzko lan mardula argitaratu du idazle elgoibartarrak, eta "Inesaren balada" gazte-nobela frantsesez kaleratu berri du. Honi guztiari buruz hitz egin dugu gaurkoan Hasierrekin, eta gauza franko interesgarriak kontatu dizkigu.*

**Nora eraman duzu oraingoan Damian Arruti?**

"Eulien bazka" nobelan kirofano batean gelditu zen Damian Arruti, gaitz larri batetatik operatzeko zain. Orain ospitaletik atera da eta Baztanera joan da, lagun artista baten etxera, deskantsatzera eta apur bat ihes egitera. Baina hori ez da beti norberaren esku egoten, eta orain ere zirkustantzia berezi batek harrapatuko du Damian Arruti. Hilketa bat gertatzen da Baztanen, eta hori da nobelaren abiapuntua. Jende asko ezagutzen du bertan, besteak beste, Baztanen duela 200 urte izan zen euskal botanikorik garrantzitsuena, Lakoizketa izenekoa. Gauza asko gertatzen dira nobelan.



Argazkiak: Iñigo Ibañez

**Zein generotan kokatuko zenule nobela?**

Genero beltzeko nobela eta aldi berean, nobela existentzialista da, azken finean, pertsonaia bere zalantzekin eta bere bizitzarekin zer egin asmatu ezinik ikusten baitugu. Beti bezala dabil Damian, ezin du sekula asmatu munduan non egon behar duen.

**"Eulien bazka" bukatu zenuenean, ba al zenekien jarraipena izango zuela?**

Bai, liburu honen hasiera "Eulien bazka" bukatu baino lehen idatzi nuen. Gero bi urtetan aurrera egin ezinda egon da, nobela bat idaztea neketsua delako. Bizitza badoa, gu ere bizi egiten gara eta gainera idatzi egiten dugu.

**Zergatik aukeratu duzu Baztan ingurua?**

Niri asko gustatzen zait errealitatea eta fikzioa nahastea, eta Baztan aldean baditut lagun artistak. Hor deskribatzen ditudan etxe, leku eta zenbait pintura egiazkoak dira. Irakurleak ez jakitea zer den egia eta zer fikzioa asko maite dut. Momentu honetan hori da literaturan gehien maite dudana.

**Elgoibar eta bere ingurunea eszenatoki egokia izango al litzateke zure nobela baterako?**

Zergatik ez, agian hurrengoa izan daiteke. Zergatik ez da agertuko hildako gorpu erdibitu bat Urasandiko zubian? edo hobeto, Melitongoan? Oraingo liburu honetan ere agertzen da Elgoibarko gauzatxo bat: hildako bat Albitxuriko zabortegian agertzen dela aipatzen da. Ni beti saiatzen naiz nire bizitzako gauzak nobeletan sartzen, eta dudarik gabe, elgoibartarra naiz.

**Damian Arrutik ba al dauka Hasier Etxeberriaren antzik?**

Bai, noski! idazle guztiok idazten dugu norberaren autobiografiatik. Nik ez dut memoria liburu bat egiten, nobela artefakto desberdin askok osatzen dute, baina jakina daudela norberaren bizitzaren pasarteak.



**«Nobela hau etxe txiki bat bezala definitu dut»**

**Idazlearen egoera pertsonalak eragina al dauka nobela idazteko?**

Nik egiten dudan literatura motan bai, fikzioa izanik ere, beti duelako errealiateta oinarri. Lagun askok esaten didate, *baina hori egixa dok?*. Eta nik beti erantzuten diet, *zer inporta dio?*.

**Nobela bat idaztea etxe bat eraikitzearekin konparatu duzu...**

Bai, etxea berritzen harrapatu niduen. Nobela hau etxe txiki bat bezala definitu dut, irakurlea goxo egon behar den etxe japoniar bat. Leiho guztiak Karakatera begira egon daitezke, baina leiho bakoitzetik ikusten den parajea, leiho horretatik bakarrik ikusten da, beti dago zerbait desberdina.

**Damian Arruti izango al da hirugarren nobela batetako protagonista?**

Mundu guztiak gauza bera galdetzen dit, baina ni momentu honetan kokoteraino nago Damian Arrutirekin. Asko maite dut, baina oso nekatuta nago. Momentu honetan ez nuke nahi, baina hori denborak esango du. Idazlea naiz eta idazteko beharra daukat, yonki batek droga beharra eta mendizale batek mendira joateko beharra daukan moduan. Beraz, idazteko behar horrek ez dakit nora eramango nauen.

**Bistatik galdu behar ez dugun idazle euskaldun bat?**

Asko daude, dozena erdi gutxienez! Denok ezagutzen ditugu. Horri buruz liburu bat idatzi nuen, "Bost idazle" izenekoa, baina gehiago dira idazle euskaldun interesgarriak.

**Eta mundu zabalean?**

Niri asko gustatzen zait ipuingintzan aritzen den Quim Monzó kataluniarra. Baita ere, Enrique Vilamatas Bartzelonakoa edo Alessandro Baricco. Baina asko dira.

**Kazetari eta Sautrelako aurkezle. Nola doa programa?**

Oso ondo. Pozik gaude. Gure helburua literaturzaleak garela transmititzea da, eta uste dut lortu dugula.

**Laster 150. saioa beteko duzue. Nor falta zaizu elkarrizketatzeko?**

Alesandro Bariccok ezetza eman dit, eta Paul Austerrek ere bai. Baina denborarekin harrapatuko ditugu.

**Txikitako lehen oroitzapena?**

San Bartolome kalean bizi ginen, eta gogoratzen naiz Plaza Txikitik eguzki izpiak sartzen zirela eta izpi horietako hautsa harrapatzen ibiltzen nintzela.

**Nola dago botila?**

Beti betetzeko.

**Egidazu erantzunik ez daukan galdera bat.**

Zenbat errubera ditu Urolako trenak?

**Nola dago zatituta mundua?**

Bitan. Alde batera daude bi zatitan banatuta dagoela pentsatzen dugunak eta bestaldean daude beste guztiak.

**Esaidazu egia bat.**

Uste dut idazle izatea lortuko dudala.

**Eta gezur bat?**

Ez dago gezurrik.

**Zerk kentzen dizu loa?**

Familiakoen eta lagunen zoritxarrek, eta faxismo berrituari aurre egin ezinak, Bush eta honelakoen aurrean zein txikiak garen ikusteak.

**Non dago paradisua?**

Ni bizi naizen itsasertz honetan.

**Hiltzeko toki bat?**

Paradisua.

**«Nobela bat idaztea oso neketsua da»**



## [ PROTAGONISTA ]



### GotzonGarate

Durangoko Liburu Azokan, Gotzon Garate idazle elgoibartarra omenduko du aurten Geredieaga Elkarteak. Abenduaren 8an, "Gauean Argi" izeneko omenaldi ekitaldian Argizaiola Saria emango diote. Euskara eta euskal kulturaren alde egindako lana goraipatzea da sari honen helburua. Gotzonek Loiolan hasi zituen bere eliza ikasketak. Gaur egun Euskal Literaturan katedratikoa da eta marxismo irakaslea izan da Deustuko Unibertsitatean. 1955. urtean hasi zen euskeraz idazten. Harrezkero, hainbat artikulu, liburu, ipuin eta eleberri argitaratu ditu.

## [ NOTIZIA ]

# Basarte auzorako sarbide berriak urte amaierarako irekiko dituzte

San Roke eta Marañonetik Basarte auzora egin dituzten sarbide berriak urte amaierarako irekitzea aurreikusten dute. Sarbide hauek oso garrantzitsuak izango dira Basarte auzoa herriko erdigunearekin lotzeko. Sarbide hauek egiterako orduan oinezkoak eta auto gidariak eduki dituzte kontuan. Orain arte auzokide gehienak Azkoitiko errepide zaharra erabiltzen zuten oinez etxera joateko. Ingurune honetan ez dago espaloirik eta arriskutsua zen.

**Bi aukera**

Aurrerantzean bi aukera izango dituzte: Madala ingurutik baldin badatoz, Marañoneko etxeen ondoan jarri dituzten eskailera mekanikoak erabili ahal izango dituzte. San Roketik autoz joateko ere balio duen bide berria erabili ahal izango dute, bi espaloi zabal izango dituelako. Kiroldegi ondoan hasiko da bidea, eta Basarte auzoko beheko alderaino iritsiko da. Erretxindi paretik Basarte auzoko goiko alderaino egin duten bide berria irekita dago.



## [ ZENBAKIA ]

# 250

Debabarrenako Caritas Elkarteak 250 familiari eman zizkion laguntzak iaz. 212.000 euro banatu zituen guztira eskualde osoan. Laguntza hauen %75a etorkinentzako izan zen, eta %16a ijitoentzako. Eskatzaileek jatekoan eta etxebizitzaren arloan daukate beharrik handiena.

## asteko [ ARGAZKIA ]




Elgoibarko Udalak auto berriak ekarri ditu Udaltzaingoarentzat. 227.000 euro inguru gastatu ditu Udalak. Bi auto eta grua berria ekarri dituzte. Ford Focus bat, Ford Tourneo bat eta grua bat. Auto hauen eskaria uda aurretik egin zuten arren, aste honetara arte ez dituzte autoak jaso. Iritsi berriak ziren asteartean. Eliza aurrean aparkatuta zeuden, eta herritarrek harriduraz begiratzen zieten auto hauei. Aurrerantzean, beraz, auto berriak gidatuz ikusiko ditugu herriko udaltzainak Elgoibarko kaleetan zehar.

# Ingurumenaren kudeaketa gestioan ISO 14000 ziurtagiria lortu du IMHk



Joan zen azaroaren 8an AENOR aholkularitzak ISO 14000 ziurtagiria eman zion Makina Erremintaren Institutuari, kanpo auditoria gainditu ondoren. Honela, IMH ziurtagiri hau lortu duen Ikaslaneko lehen ikastetxea izatera pasa da. Ikaslan Euskal Erkidegoko lanbide heziketako ikastetxe publikoen sarea da. Proeiktuan Goierri Lanbide Eskola (Ordizia), Politeknika Ikastetxea (Derio), C.F Somorrostro (Muskiz) eta Elgoibarko IMHk hartu zuten parte.

Lehen fasean ingurumenarekin zerikusia duten erakundearen jarduera garrantzitsuenen arloak identifikatu eta kudeatu ziren, Ekoskan erreminta erabiliz. Tresna hau Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak diseinatu eta sustatzen du. Bigarren fasean, ingurumena kudeatzeko sistema eta bere inplantazioa lortzeko prozeduren diseinua egin zen.

### Sistema ezarri eta finkatu

Sistema ezarri ondoren, IMHren helburua sistema bera finkatzea da, eta hori hobetzeko lana egingo du etengabe, bertako langile eta ikasleek ingurumenarekiko errespetua hartzeko helburuarekin.

## Antonio Arrillaga kalean hasi dira lurrazpiko zabor kontenedoreak jartzeko obrak



Antonio Arrillaga kaleko lurra zulatzen hasi dira dagoeneko, lurrazpiko zabor kontenedoreak jartzeko. Ermuaranbide kalean egin duten moduan, kale honetan ere, zabor kontenedoreak ezkutatzea da helburua. Sei zabor kontenedore jarriko dituzte guztira: bi hondakin solidoak jasotzeko, beste bi kristalarentzako, bat papera eta kartoia jasotzeko eta azkena ontziak biltzeko. Obra hauek bukatzen dituztenean, Plaza Txikian eta Pedro Migel Urruzuno kalean hasiko dira obrak. Ingurune hauetan lurrazpiko beste 13 zabor kontenedore jarriko dituzte.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Zoriontsu izateko tailerra

"Zoriontsu bizitzeko otoitz egiten ikasi" lemapean, zoriontasuna bilatzen laguntzeko tailerra izango da bihar, azaroak 26, Elgoibarko Parrokiako lokaletan. Bi saio eskainiko dira, lehenengoa arratsaldeko 15:00etan eta bigarrena 18:00etan. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 02 68 (Enrike) telefonora deitu daiteke, edo otoitzetabizi@terra.es helbidera mezu bat bidali.

### Lapurretak

Azkenaldian herriko zenbait komertziotan lapurretak izan dira. Besteak beste, Goiara lurrindendan, Armueta eta Landa harategietan eta Ama Lurra Fisioterapia zentruan. Udaltzaingotik esan digutenez, "kanpotik etortzen dira, auto bat lapurtu, eta lapurreta egin ondoren ihes egiten dute". Lapurretak asteburuan eta aste barruan izan dira.

### Jostailu bilketa

Urtero bezala, Gurutze Gorriak jostailuak biltzeko kanpaina jarri du martxan, Olentzero egunean banatzeko. Azaroaren 28tik abenduaren 2ra, Gurutze Gorriko lokalera eraman daitezke jostailuak, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Aurten ikastetxeetan, Liburutegian eta Atxutxiamaikak egingo duen erakusketan ere jasoko dira jostailuak.

### Mausitxako gazta bigarren txapeldunen lehiaketan

Jesus Ansola eta Rosa Mari Salegi Mausitxa baserriko senar-emazteek Ordiziko txapeldunen lehiaketan hartu zuten parte joan zen hilaren 19an, eta bigarren saria eskuratu zuten. Lehiaketa honetan, Ordizin azken 10 urteotan irabazle geratu diren gazta desberdinek hartu zuten parte. 2005. urtea, dudarik gabe Mausitxako gaztarena izan da.

Asteburu honetarako hotza eta elurra datozela iragarri dute metereologoek.

# Zein da hotzari aurre egiteko modurik onena?

**MANUEL GALINDO**
Azulejogilea
52 urte



"Ondo jantzita irten. Bestela etxean gelditu eta berogailua ipini. Ez dut horretan pentsatzen, ezin da ezer egin horren aurka, azkenean datorrena etorriko da."

**ANTONIO GOMEZ**
Jubilatua
66 urte



"Ni denerako prestatuta nago; beroa, haizea edo hotza berdin zait, ez daukat arazorik. Datorrena datorrela, ez diot beldurrik eta ondo egingo diot aurre."

**MAITE CID**
Tailerreko langilea
30 urte



"Ondo janztea da hotzari aurre egiteko modurik onena. Ez gara etxean gelditzen hotz egiten duelako. Euria ez zait batere gustatzen, baina elurra bai, egin dezala!"

**ERIKA BATISTA**
Ikaslea
11 urte



"Neguko erropak jantzten ditut epelago egoteko, baina hotzak ez nau beldurtzen, udako bero jasanezina baino gehiago gustatzen zait hotza."

# [ BAI ala EZ? ]

## Bailarako 4 depuradorek, Apraizkoa barne, garbituko al dute ibaia?

**BAI %60**

"Bai, hemendik aurrera ibaiak kutsatzeari laga, eta zorrotz eusten badiogu, naturak birziklatu eta biziak aurrera egiteko duen indarrean sinisten dut. Dagokigun partea bete behar da, ordea."

**EZ %40**

"Ez dut uste nahikoa izango denik. Gutxiago kutsatu behar da. Enpresek kontzientzia hartu behar dute. Harrigarria da abuztuan ze garbi egoten den erreka, amuarrainak ere ikusten dira!"

Datorren asterako.... Munduan hiru milioi haur hiltzen dira gosez urtean, Afrikan gehienak.
**Ikusten al diozu irtenbiderik mundu mailako goseari?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Gabi jatetxea

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**.
Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

# Santa Zezilia Eguna ospatu zuten Musika Eskolan

Azaroaren 22an ospatzen da Santa Zezilia Eguna, hau da, Musikarien Eguna. Musika Eskolarentzat egun handia izaten da hau, eta modu ezin hobean ospatzeko, ikasle guztiekin kontzertua eskaini zuten, astelehenean, azaroaren 21ean. Elgoibarren ez zaigu musikaririk falta, ume mordoa ari da musika ikasten, eta Musika Eskolako Auditorioa txiki gelditu zen. Bi saio desberdin egin zituzten, lehenengoa 7 urteko ikasleen kontzertua izan zen, eta honen ondoren, gainontzeko ikasleek eskaini zuten kontzertua.

**Musikari harrobia**

Etxeko txikienetatik hasita, ikasle guztiek beren dohaiak erakutsi zituzten. Abestu, dantzatu eta instrumentu desberdinekin daukaten abilezia erakutsi zieten Musika Eskolako Auditorioan bildu ziren ikusle guztiei. Ikusleak oso gustura egon ziren, eta musikaz gozatzeko aukera oso polita izan zuten. Esan daiteke Elgoibarko musikarien harrobiak etorkizun oparoa duela. Kontzertua bukatu zenean, ikasle guztiek diplomak jaso zituzten. Hurrengo egunean, Santa Zezilia eguna, jai egin zuten.



## [ IRTEERAK ]



### Herri Eskolakoak Billabonan

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, Billabonara egin zuten irteera Herri Eskolakoek, Eskolarteko XVIII. Mendi Lehiaketaren Finalista Egunera. Bertan diplomak jaso zituzten iaz lehiaketa bukatu zuten 17 ikaslek. Eguraldia oso ona ez izan arren, talde polita osatu zuten. Hamaiketakoa egin zuten tokian atera zuten argazkia.

## [ IKAS KONTUAK ]

### Santa Zezilia Eguneko kalejira

Urtero bezala, Elgoibar Ikastolako ikasleek kalejira egin zuten Santa Zezilia Egunean, azaroaren 22an. Goizean goiz, Plaza Handitik Ikastolaraino joan ziren kaleak musikaz alaituz. Arratsaldean, kontrako ibilbidea egin zuten, hau da, Ikastolatik irten eta Plaza Handian eman zioten amaiera kalejirari. Musikarien Eguna ospatzen da egun honetan, eta Regina Arrieta musika irakaslearen zuzendaritzapean, Elgoibarko kaleak dantzan jarri zituzten.





**II. URTEURRENA**

2003ko azaroaren 23an, 48 urte zituela hil zen

*Julian Zubiaurre Celaya*ren

oroimenez urteurreneko meza izango da,

larunbatean, hilak 26, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



## Eliz abesbatzaren kontzertua domeka honetan

Mendaroko Eliz Abesbatzak Santa Zeziliaren omenezko saioa eskainiko du domeka honetan, hilaren 27an, Garagartzako elizan. 12:00etako mezatan izango da abesbatzaren emanaldia. Jose Mari eta Agustin Berazaluze anaien aginduetara 25 lagun arituko dira kantuan eta Angel San Martin arduratuko da organoa jotzeaz, bera baita Azpilgoetako eta baita Garagartzako parrokietako organujolea. Bide batez, abesbatza osatzeko jende gazte beharrean daudela zabaltzeko eskatu digute abesbatzatik.

## Izartu programa ebaluatzeko galdeketa

Azaroaren 30a bitartean, Asteko, S.L. enpresak Izartu programaren gaineko inkesta egingo du mendaroarren artean. Mendaroko Udalak, Izartu programaren barnean, aurrera eraman dituen proiektu eta obrak ebaluatzeko, eta herritarrek hauen gain duten iritzia jakiteko balioko dute inkesta hauek, batipat.

## Ipuin Lehiaketan aurkezteko epearen luzaketa

Mendaroko Udalak Gabonetako Euskarazko XI. Ipuin Lehiaketan lanak aurkezteko epea luzatu du. Idazlanak aurkezteko azken eguna abenduaren 7a, eguaztena, izango da. Informazio gehiagorako telefonoa: 943 03 32 82 (Kultura Saila).

## Fernando Garciaren margo erakusketa

Anton Urreistiren erakusketa amaitu ostean, Fernando Garciaren margolanak jarriko dira ikusgai Udaleko Otaerre aretoan. Erakusketak abenduaren 2tik 18ra iraungo du. Bisita ordutegiak; ostiraletan: 18:00-20:00 eta zapatu eta domeketan: 12:00-14:00.

BEHOBIA-DONOSTIA

# 15 mendaroar Behobia-Donostia lasterketan



Aurten 15 izan ziren Behobia-Donostia Lasterketa Herrikoian parte hartu zuten mendaroarrak. Iazko kopurua bikoiztu dute, sei herritar bakarrik joan baitziren joan zen urtean. Denbora apartak egin zituzten, gainera, lau lagun jaitsi baitziren ordubete eta hogei minututik. Lehen mendaroarra Juan Antonio Soto izan zen. Sotok meritu handiko lasterketa egin eta sailkapen nagusiko 45. postuan amaitu zuen 1:08:26 denborari esker. Gainontzekoek ere aipamena merezi dute, noski, amaitzeak ere bere meritua baitu. Bestalde, 4 mendaroarrek parte hartu zuten Karakaterako Igoeran eta Igor Rey (33´51´´) izan zen herritarrik onena sailkapen nagusiko 6. postuan sailkatuz.

**MENDAROARREN SAILKAPENA**

| Izena | Postua | Denbora |
|---|---|---|
| 1. Juan Antonio Soto | 45 | 1:08:26 |
| 2. Haritz Goikoetxea | 177 | 1:12:58 |
| 3. Jokin Aguirrezabala | 743 | 1:19:06 |
| 4. Iñaki Arregi | 805 | 1:19:26 |
| 5. Ion Larrañaga | 1037 | 1:20:59 |
| 6. Igor Ezenarro | 1513 | 1:23:38 |
| 7. Roberto Osoro | 2035 | 1:25:55 |
| 8. Jurdan Ezenarro | 4878 | 1:35:02 |
| 9. Ibai Idoeta | 6813 | 1:41:29 |
| 10. Gorka Romero | 7735 | 1:45:11 |
| 11. Iñaki Ferreria | 8194 | 1:47:09 |
| 12. Roberto Mangana | 8247 | 1:47:27 |
| 13. Mikel Rua | 8337 | 1:47:52 |
| 14. Agustin Berazaluze | 9262 | 1:52:51 |
| 15. Jose R. Cabello | 9893 | 1:57:15 |

KILI KLIK



## Bizkotxoak berreskuratuz

Kontsezio Azoka abenduaren 10ean ospatuko da. Bertan Mendaroko bizkotxo entzutetsuetaz gozatzeko aukera izango da. 10 urteko etenaldiaren ostean, 2003an berreskuratu zen Mendarori izen handia eman dion bizkotxoak egiteko ohitura. Azken bi urteetan ere ez dira egin, baina Luis Mendicutek eta bere laguntzaileek asteak daramatzate lanean; bizkotxoak nola egiten diren ikasten.



# IKER MAYORA

Maratoilaria

## «Donostiako maratoian 2 ordu eta erditik jaistea nahi dut»

*Maratoilari ona izateko egunero errepidean ibili beharra dago. Iker Mayorak (26 urte) 4.000 kilometro inguru egiten ditu urtean. Domekan Donostiako maratoian parte hartuko du eta bi ordu eta erditik jaistea da bere helburua.*

**• Ondo prestatuta al zoaz?**
Prestaketa aldetik ez daukat aitzakiarik, gero ikusi egin behar. Iaz ere ondo prestatuta joanagatik, azken orduko tripako minek 12. kilometroan bertan behera lagatzera behartu ninduten. Bi ordu eta hogeitamar minututik jaistea dut helburutzat. Batezbeste 3 minutu eta 34 segundutan egin beharko dut kilometro bakoitza. Arriskurik gabe ez dago saririk!

**• Korrika asko egin beharko da 42 kilometroan bi ordu eta erditik jaisteko?**
Bai, Gipuzkoan bertan gutxi dira maratoian 2:30etik jaitsi daitezkeenak, bost bat izango dira. Asier Cuevasek du markarik onena (2:15).

**• Zenbat maratoi egin dituzu?**
Aurtengoa Donostiakoan parte hartzen dudan hirugarrena izango da. Estraineko aldian, 2003an, 2:38:12 denborarekin 35. postuan sailkatu nintzen. Esan bezala, iaz erretiratu egin nintzen, eta preskakuntza egina nuela aprobetxatuz, Lisboako maratoia (2:34) egin nuen astebete geroago. Halarik ere, maratoi batean egin dudan markarik onena, 2:32:38, Rotterdam-ekoan egin nuen apirilean. Chicagora ere joan nintzen bertako maratoia korritzeko, baina azken orduko erabakia izanik, dortsalik gabe joan nintzen eta ahalegindu arren, proba egin gabe itzuli nintzen etxera.

**• Ba al daukazu entrenatzailerik?**
Asier Cuevas eibartarrarekin hasi nintzen korrika duela 5 urte eta berak gidatzen nau. Taldekideak ere bagara, Goierri Garaia taldekoak, hain zuzen ere.

**• Zer da zailena maratoi batean?**
Konpetizio eguna baino, egun horretarako egin behar diren entrenamendu eta kilometro mordoa. Astean behin, esaterako, 25 eta 34 kilometro arteko entrenamendu luzeak egiten ditut. Gainontzeko egunetan, serie luzeak eginez entrenatzen dut. Urte guztian aritzen naiz korrika, eta maratoi batetarako prestakuntza bereziak hiru hilabete irauten ditu.

**•Zenbat maratoi egin daitezke urtebetean?**
Esaten dutenez ez da komeni bi baino gehiago egitea, betiere topera egiten badira. Kirol arloan dabiltzan zientzialariek diotenez, giza gorputzak 30 kilometro egin ditzake bere ahalegin guztian, topera. Behin 30 kilometroz gero, gorputza indarra galtzen hasten da, eta baliteke, ondo joan arren 40. kilometroan pott egitea, nahi eta ezin geratzea, alegia. Hemen ez dago sekreturik, behin zure mugara iristen zarenean oso zaila da kronometroari segundoak lapurtzea. Kirol oso matematikoa da: nola entrenatu halako markak. Halere, aldi berean, oso injustua izan daiteke: behar bezala denbora luzez entrenatu arren, egun txar batek dena pikutara bidali dezake.



**«Egun txar batek dena pikutara bidali dezake»**





# lotsaGABE

**Aitor Alvarez** *17 urte*

**Elurra, mendian ikusteko ala disfrutatzeko?**
Disfrutatzeko, eskiatzera joatea gustatzen zait.

**Hotzari aurre egiteko irtenbiderik onena?**
Ondo jantzi eta estalita ibiltzea.

**Zerk beldurtzen zaitu?**
Oraindik ez dut benetako beldurra sentitu inoiz.

**Eta, zerk emozionatzen?**
Gauzak ondo egiteak, eta ondo eginak daudela ikusteak.

**Musuak, jaso ala eman?**
Biak ditut gustuko eta biak dira beharrezkoak.

**Zertarako bete nahi dituzu 18 urte?**
Ez nago horren zain.

**Bidaiatzeko toki bat?**
Edozein, atzerriko toki guztiak ezagutuko nituzke.

**Nori kontatzen dizkiozu sekretuak?**
Oso jende gutxik ezagutzen ditu nire sekretuak.

**Neska eta mutila izan al daitezke lagunak?**
Bai, dudarik gabe, oso lagun onak gainera.

**Zer ez zenuke sekula barkatuko?**
Barkamena eskatzen badidate, dena barkatuko nuke.

**Hitz egitea ala entzutea nahiago?**
Entzutea, dudarik gabe.

**Gurasoak guraso ala lagunak dira zuretzat?**
Guraso.

**Bizitzako unerik gozoena?**
Asko, ez nuke bat aukeratuko.

**Eta gaziena?**
Aitonaren heriotza.

**Etorkizunerako planik?**
Batxilergoa gainditzea eta begirale modulua egitea.



# biluzik
sexologia txokoa

Eider Arzelus [Sexologoa]

## Tratu Txarren Kontrako Eguna

*Gaur, azaroak 25, "Genero Bortizkeriaren Prebentzioko Nazioarteko Eguna" ospatzen da, hau dela eta, eta prebentzio lana oso garrantzitsua denez, Biluzik Zerbitzutik DBH4. mailako ikasleentzako tailerra antolatu dugu. Elgoibar BHIko 2 gelatan eta Elgoibar Ikastolako beste 2 gelatan eskaini ditugu.*

**• Emakume batek tratu txarrak jasotzeagatik bere burua errudun ikus dezake...**

Pentsatu behar dugu, askotan eraso fisikoaren aurretik, eraso psikologikoa eman dela, emakumea gizonarengatik manipulatua dago, bere tiraniaren menpe sentitzen da. Ondorioz, eta gizonarengatik jasotzen duen gehiegikerai emozionala dela-eta, emakumearen autoestimua ezabatu egiten da eta gizonak berari pasatzen dio pilota, gertatzen zaionaren errudun dela sinistaraziz. Beraz, jasotakoa merezi duela uste du emakumeak. Errudun sentimendu hau emakumearengan sortzea, gizonak erabiltzen duen beste "trikimailu" bat da.

**• Gero eta gehiago dira bere bikotekideak jo edo hiltzen dituzten emakumeak.**

Komunikabideen eragina dela eta badirudi gero eta emakume gehiago direla tratu txarren biktimak, baina tamalez betidanik gertatu izan da hau. Fenomeno hau, gaur egun, mundu guztian zehar ematen diren giza eskubideen bortxaketen artean gehien ematen dena da.

**• Zer egin behar da tratu txarrak jasaten direnean, edo ezagutzen duzun norbaitek tratu txarrak jasaten dituela dakizunean?**

Lehenik eta behin salatu egin behar dugu, bestela eraso horien "konplize" bihurtzen gara. Hala ere, egoera guztiak desberdinak dira, beraz salaketak ere kontuz egin behar dira. Baita norberari horrelako zerbait gertatzen bazaio ere, bestela inork ezingo gaitu lagundu.

---

gazte informazioa

### IKASTAROAK

**INSTALATZAILE ARGIKETARI IKASTAROA**

Hernani Institutuak instalatzaile argiketaria izateko ikastaroa antolatzen du. Baldintzak: Langabeei zuzendua. Iraupena: 260 ordu. Ikastaroa astelehenetik ostegunera, 15:30etatik 20:30etara 2006ko urtarrilaren 16an hasiz. Plaza-kopurua: 8. Balioa: doan. Epea: Plazak bete arte. Informazioa: 943 551958 (Jesus Ezquerro).

### EKINTZAK

**ARTEAREN FERIA DONOSTIAN**

Donostia Kultura eta Gipuzkoako Arte Elkarteak azaroaren 27an Donostiako Gipuzkoa Plazan artearen feria antolatuko du, artistak sustatu eta haien lanak hedatzeko helburuarekin. Informazioa: 943 473837.

### BEKAK

**ARARTEKOAREN 2005-06 IKERKETA BEKA**

Arartekoak Giza eskubideen esparruko ikerketa, prestakuntza eta azterlanetarako beka. Baldintzak: 2000ko urtarrilaren 1aren ondoren lortutako lizentziatu-titulua eta EAEko hiritar izatea. Iraupena: 10 hilabete. Diru-laguntza: 1.220 euro hilean. Epea: abenduak 12. Informazioa: 943 420888

**ARARTEKOAREN IKERKETA APLIKATUETAN BEKA**

Arartekoak bereziki ahula den gizartetalde bati dagokionez gure erkidegoan giza eskubideak zein neurritan aplikatzen diren ikertzeko beka. Baldintzak: EAEn bizi diren pertsonak. Iraupena: 10 hilabete. Diru-laguntza: 20.000 euro. Epea: abenduak 12. Informazioa: 943 420888

**GIZARTE EKONOMIAREN ESPARRUAN IKASKETAK AREAGOTZEKO BEKA**

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak Gizarte Ekonomiaren esparruan ikasketak areagotzeko beka. Baldintzak: Zuzenbideko lizentziatuak. Iraupena: 12 hilabete. 21.000 euro. Epea: abenduak 9. Informazioa: 945 019101

### LEHIAKETAK

**FILM LABURREN XI. "ERRENTERIAKO HIRIA" LEHIAKETA**

Errenteriako Udalak Gazteen artean ikus-entzunezko artea sustatu eta garatzeko lehiaketa antolatu du. Baldintzak: 16tik 30 urtera bitarteko adina izatea, 2004 baino lehenagokoak ez diren lan originalak izatea, VHS, SVHS edo DVD formatuan izatea 15 minututik beherako iraupenarekin eta edozein gairi buruzkoak eta edozein hizkuntzatan eginak izatea. Sariak: 1.saria 800 euro, diploma eta trofeoa, 2. saria 400 euro, diploma eta trofeoa eta ikusleen saria 200 euro eta diploma. Epea: otsailak 17. Informazioa: 943 449600.

**ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA**
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461
Asteartetik ostiralera 16:00-19:00

### Euskal Bideo eta Zine Bilera

# Manu Izagirrek saharauiar errefuxiatuen inguruan eginiko bideoa saritu dute

XVIII. Lekeitioko Euskal Bideo eta Zine Bileran, "Dokumental edo erreportaia profesional" arloan, bigarren saria jaso du Manu Izagirre elgoibartarraren lan batek. Iazko abenduan Sopelako Ander Deuna Ikastolako 2. batxillergoko (16-17 urte) ikasle talde batek, Tinduf-en dauden saharauiar errefuxiatu kanpamenduetara eginiko ikasbidaiari buruzko bideoa da. Ikasbidaiaren helburua, El Aaium-eko Olof Palme emakume eskolarekin "anaitzea" zen. Errefuxiatu kanpamenduetara, eskolarako beharrezko material ugari eraman zuten Sopelako gazteek (batez ere, bigarren eskuko ordenagailuak). "Bidai ahaztezina izan zen gazteentzat. Beraientzat guztiz ezezaguna zen bizimodu, erlijio... batekin topo egin zuten. Gure gehiegikeriarik gabe bizi den gizarte bat ezagutu zuten, orain 30 urte beraien lurraldetik ihesi irten eta Argeliako Hamadan, egoera oso gogorrean, bizi den herri honen bizimodua" Manuren berbetan.

Bideoak, ikasleen bidai aurreko eta ondorengo ikuspuntua erakustea du helburu, Saharar herriaren egoera politikoa ere aipatuz. Hamar minutuko iraupena du (video-clip erakoa da), baina Izagirreren asmoa bilduta duen material guztiarekin iraupen luzeagoko dokumental



## Herriko kolektiboak eta dokumentala uztarturik Ongarriren ziklo berrian

Zinema dokumentala izango da Ongarri Zine Klubak antolatutako ziklo berriaren ardatza, eta dokumental bakoitzak herriko kolektibo edo talde baten laguntza jasoko du. "El mundo a cada rato" (abenduak 1) Errotatxorekin elkarlanean eskainiko da. "The soul of a man", (Abenduaren 15) Arima Beltza taldeko kide batzuren laguntzaz (pieza batzuk joko dituzte emanaldiaren aurretik) eta "Ayurueda" (abenduak 22) Morkaiko M.E. eta Elgoibarko Izarraren eskutik iritsiko da Herriko Antzokira.

## Jostailuen erakusketa gidatua abenduaren 1etik 3ra



Merkatuan eskaintzen diren jostailu ezberdinak ezagutu eta aztertzea, eta umeei eta gurasoei jostailuen inguruko ikuspegi berri bat eskaintzea da jostailuen erakusketa gidatuaren helburuetako bat. Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak antolatu duen erakusketan, jostailu bakoitzak haurraren garapenean betetzen dituen funtzioak aztertu, kalitate teknikoa (material egokia, iraunkortasuna...) ezagutu eta jostailuak ukitu eta hauekin jolasteko aukera izango da, besteak beste. Abenduak 1, 2 eta 3an egongo da erakusketa Kultur Etxeko sotoan. Eguenean eta barixakuan (17:00-20:00) eta zapatuan (11:00-14:00).



**I. URTEURRENA**

2004ko azaroaren 24an, 84 urte zituela hil zen
*Jose Manuel Gurrutxaga Lizarralde*ren
oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, hilak 26, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



## [ GOMENDIOA ]



Nora Bastida

Dentista

NORA BASTIDA HORTZ KLINIKA

# Aho osasuntsu bat

Garrantzi handikoa da aho osasuntsu bat izatea, ez bakarrik estetikagatik, batez ere, ahoa oso ate aproposa baita bakterien erasorako. Gomendioak:

1.- Urtean behin dentistarengana rebisioa egitera joan (kasu batzutan 3 edo 6 hilabeteroko kontrolak egin behar dira).

2.- Hortzetako zepiloa aukeratzeko orduan:

• Buruak ez du handiegia izan behar atzeko hortzak behar bezala garbitzeko.

• Gogortasunaren arabera: gogorrak, erdiak eta leunak. Gogorrek entzia mindu dezakete.

• Elektrikoak ez du abantailarik; biak ondo erabiltzean datza arrakasta.

• 3 hilabetero ordezkatu.

3.- Aho garbiketarako arauak:

• Egunean hiru aldiz egin behar da baina garrantzitsuena gabekoa da, ordu asko baitira jarraian bakteriek lan egiteko eta gainera defentsa naturalak geldik dauzkagu; mingaina, listua... Oso kaltegarria da, adibidez, koka-kola, chocolatea, toffe... bezalako elikagai likatsu eta gozoak jan eta hortzak garbitu gabe ohera joatea.

• Mingaina ere garbitu.

• Zepiloa ez da indar gehiegirekin erabili behar.

• Hortz garbiketa konpletua izan dadin seda dentalaz baliatuko gara eta baita ere "Kolutorioa" eta "cep. interproximalez" beharrezkoa den kasuetan.


## [ OSASUN GIDA ]

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkartea
Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131
Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30
*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30
Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa
San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### HORTZ KLINIKAK

Nora Bastida
Azpilgoeta, 5 (MENDARO) Tel: 943 03 35 75
Astelehenetik ostiralera: 9:30-13:00 / 15:30-19:30

Irale
Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

### FISIOTERAPIA

Olatz Fisioterapia
(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)
San Roke, 1 - Tel. 696 821 149
Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

### PODOLOGOAK

Iñaki Rivero
San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90
Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri
Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

XII. KARAKATERAKO IGOERA

# Mikel Albeniz donostiarra garaile partaidetza errekorra hautsi zuen Karakaterako igoeran

Inoiz baino antxintxikari gehiago, 31 lagun, bildu ziren Plaza Handian Karakaterako igoera gogorrari aurre egiteko. Hauetatik 13 elgoibartarrak eta gainontzekoak Euskadiko hiru probintzietatik etorriak. Rodisan lan egiten duen Mikel Albeniz donostiarra izan zen Karakatera ailegatzen bizkorrena. Trintxerpe klubeko korrikalariak 31 minutu eta 5 segundu erabili zituen 700 metroko desnibela gainditzeko. Lankideen animuei kasu eginez, eta astebete lehenago Behobia-Donostian egin zuen 1:10:08 denborak ematen zion konfidantza eta sasoi puntuak bultzatuta parte hartu zuen. Lehen elgoibartarra, Jose Mari Fernandez, probako dominatzaile nagusia izan zen, beste behin. Azken urteetako denboretan (32 minutu) mantendu zen "Suso".. Lasaitu ederra hartu zuen 96an ezarri zuen errekorrak (29:43) bere horretan jarraituko zuela egiaztatzean. Partaidetza errekorra ez ezik (aurrekoa 20 lagunetan zegoen), Karakaten eta Plaza Handian bildu ziren ikusle kopurua aipagarria izan zen. Aste euritsuaren ostean egun fresko baina eguzkitsua atera zen, eta ikusle mordoa animatu zen Karakatera oinez igotzera.







## SAILKAPENA

| Postua | Izena | Herria | Denbora |
|---|---|---|---|
| 1 | Mikel Albeniz | Donostia | 31:05 |
| 2 | Joxe Felipe Larrazabal | Okondo | 31:29 |
| 3 | Jose M. Fernandez *"Suso"* | Elgoibar | 32:00 |
| 4 | Jesus M. Romon | Muskiz | 32:51 |
| 5 | Iñigo Ortuoste | Elgoibar | 32:55 |
| 6 | Igor Rey | Mendaro | 33:51 |
| 7 | Jose Cruz Montes | Elgoibar | 33:52 |
| 8 | Ignacio Diaz | Mendaro | 33:57 |
| 9 | Jon Revert | Elgoibar | 34:01 |
| 10 | Ibon Gonzalez | Zizurkil | 34:26 |
| 11 | Martin Dominguez | Elgoibar | 35:26 |
| 12 | Sabin Zenarruzabeitia | Aulestia | 35:35 |
| 13 | Manolo Ramos | Elgoibar | 35:44 |
| 14 | Koldo Azkorbeitia | Soraluze | 36:01 |
| 15 | Asier Orbea | Elgoibar | 36:11 |
| 16 | Asier Arrieta | Elgoibar | 36:13 |
| 17 | Iñaki Arregi | Mendaro | 36:22 |
| 18 | Marcelino Serrano | Gasteiz | 36:59 |
| 19 | Ibon Serrano | Elgoibar | 37:27 |
| 20 | Andoitz Agirregomezkorta | Elgoibar | 38:02 |
| 21 | Roberto Osoro | Mendaro | 38:05 |
| 22 | Xabier Lasa | Andoian | 38:10 |
| 23 | Jon Arrieta | Soraluze | 38:14 |
| 24 | Goio Sanz | Larrabetzu | 38:23 |
| 25 | Jabier Fernandez | Elgoibar | 38:48 |
| 26 | Joseba Sanz | Bilbao | 39:17 |
| 27 | Gonzalo Ariznabarreta | Soraluze | 40:44 |
| 28 | Juan Luis Moreno | Orereta | 41:36 |
| 29 | Aitor Romera | Elgoibar | 41:38 |
| 30 | Iñigo Ajuria | Durango | 42:04 |
| 31 | Xabier Elustondo | Elgoibar | 46:20 |

### MINTXETA A.T-UDALA HITZARMENA

# Mugerza Krosa datozen bi urteetan antolatzeko hitzarmena




Aurrez zuten hitzarmenari jarraipena emanez, Mintxeta Atletismo Taldeak eta Udal Kirol Patronatuak Mugerza Krosaren hurrengo bi edizioak (2006 eta 2007) antolatzeko hitzarmena sinatu dute (argazkiak sinaketaren unea jasotzen du). Hitzarmena, Nazioarteko Juan Mugerza Krosari dagozkion ekintzak elkarlanean antolatzeko marko arautzailea izango da, eta bertan, Elgoibarko Kirol Patronatuaren nahiz Mintxeta A.T.ren zereginak eta erantzunkizunak zehazten dira. Urtarrilaren 22an izango da krosa eta ETBk zuzenean emango du telebistaz. TVE-2 kateak, berriz, diferituan. Bestalde, antolatzaileek argazki zaharrekin osatutako erakusketa bat antolatzeko asmoa dute eta baita krosaren inguruko bideo bat banatzekoa ere.

## Eskola Kirolean ari diren haurren gurasoentzako materiala

Kirola Euskaraz egitasmoarekin jarraituz, Deba bailarako Udaletako Kirol eta Euskara zerbitzuek elkarlanean sortutako materiala banatu dute eskoletan. Eskola Kirola programan hasiberri diren umeen gurasoak sentsibilizatzeko aurrez banatutako karpeten osagarriak dira. Gurasoek paper garrantzitsua dute kirolaren inguruko baloreen heziketan, horregatik, eurei zuzenduriko diptikoak dira. Kirola edo ariketa fisikoa egiteak umeari dakarzkion onurak adierazteaz gain, Eskola Kirolean parte hartzearen garrantzia azpimarratzen da. Euskararen erabilerari dagozkionak ere aipatzen dira, euskaraz antolatzen baita




debarroan eta umeek euskaraz berba eginez gozatzeko aukera izango baitute. Euskarak aurrera egingo badu, argi dago eskolatik kanpo ere erabili behar dela. Materiala Lehen Hezkuntzako 4. Mailako haurren gurasoei banatuko zaie.

## Igor Elizburuk 1:20:00 denbora egin zuen Behobia-Donostian



Hand-Bike modalitatean parte hartu zuen Igor Elizburu elgoibartarrak Behobia-Donostia lasterketan. Helmugan ordubete eta 20 minutuko denbora ezarri zuen Igorrek. Meritu handiko denbora 20 kilometroak eskuen indar soilaz egin zituela kontutan hartuz gero. Bera da, hain zuzen ere, hand-bike modalitateko egungo Euskadiko Txapelduna.

## [ EMAITZAK ]

**FUTBOLA**

Haundi 0 - Amorebieta 0 (3. maila)
Elgoibar 2 – Santo Tomas 1 (Erreg.)
Antiguoko 0 – Elgoibar 0 (Jub.)
Amaikak Bat 0 – Elgoibar 1 (Kad.)
Elgoibar 2 – Kostkas 2 (Inf. A)
Elgoibar 0 – Aloña Mendi 3 (Neskak)
Elgoibar 1 – Urki 1 (Neskak F-8)

**ARETO FUTBOLA**

Kenci Elg. 4 - Lo Mas 6 (Nazional B)
Lanbroa 1 - Tecnum (1. maila)
Cash Converters 1 - Toletxe Kafetegia 4 (Jub.)

**PILOTA**

Udaberri Txapelketa

Ilunpe 22 - Lagunak (Ulazia/Loiola)20 (2. nag.)
Lagunak (Liz./Arrizab.) 22 - Urnieta 1 (2. jub.)
Lagunak (Arrib./Sal.) 22 - Urnieta 10 (nag)

**ESKUBALOIA**

Urnieta 14 - ANTT Softlan 24 (Sen. mut.)
Zarautz 22 - Tecnifuelle 31 (Sen. mut.)
Lojantzi 29 – les construccion 25 (Sen. nesk.)
Pneumax 28 –L eizaran 18 (Jub. mut.)
Cometel 16 –Ar ate Amaña 23 (Jub. nesk.)
Urrobitza 37 –L a Salle 13 (Kad. mut.)
Sanlo 17 – Aozaraza 12 (Inf. nesk.)
Mutrikuarrak 5 – Sanlo 28 (Inf. nesk.)
Eharialdea 10 – Pagoaga 5 (Kad. nesk.)

## [ AGENDA ]

**FUTBOLA,** Mintxetan

Zapatua, 26
12:30 Elgoibar – Antiguoko (Inf. A)
18:30 Elgoibar – San Marcial (Jub.)
Domekia, 27
11:15 Elgoibar – Aretxabaleta (Aleb.)
12:30 Elgoibar – Eibartarrak (Kad.)

**ESKU PILOTA,** Ikastolan

Domekia, 27
12:00 Lagunak – Hernani (Jub. neskak palaz)

**ARETO FUTBOLA** Kiroldegianp

Domekia, 27
12:30 Toletxe Kafetegia –MCM A (1. maila)

**ESKUBALOIA** Kiroldegian

Zapatua, 26
11:00 Tecnomeca – Urola (Kad. mut.)
16:00 Pagoaga – Urnietako (Kad. nesk.)
17:30 Urrobitza – Donibane (Kad. mut.)
19:00 Lojantzi – Urdaibai (Senior nesk.)
Domekia, 27
9:30 Sanlo A – Bergara (Inf. nesk.)
10:45 Tecnifuelle – Askartza (Sen. mut. 2. naz.)

OHARRA
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

- Azkoitiko enpresak **galdaragilea** behar du. Erref. 162005012355
- Debako enpresak **trokelgintza eta moldeetako teknikaria** behar du. Erref. 162005012429
- Gipuzkoako enpresak **soldadorea** behar du. Erref. 162005012440
- Elgoibarko enpresak **peoia** behar du. Erref. 162005012322
- Eibarko enpresak **2. mailako arotza** behar du. Erref. 162005012382
- Arrasateko enpresak **erizaina** behar du. Erref. 162005012424
- Arrasateko enpresak **arkitekto teknikoa** behar du. Erref. 162005012421
- Azkoitiko enpresak **mekanikoa** behar du. Erref. 162005012381
- Gipuzkoako enpresak **erizain laguntzailea** behar du. Erref. 162005012190
- Gipuzkoako enpresak **odontologiako laguntzailea** behar du. Erref. 162005012341
- Arrasateko enpresak **mekanikoa** behar du. Erref. 162005012284
- Azkoitiko enpresak **tornulari eta fresatzailea** behar du. Erref. 162005012197
- Azpeitiko enpresak **zenbakizko kontroldun makinen programatzailea** behar du. Erref. 162005012236
- Bergarako enpresak **marketing irakaslea** behar du. Erref. 162005012173
- Zarautzeko enpresak **automatizazio teknikaria** behar du. Erref. 162005012123

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## [ LANA ]

**ESKAERA**

- Magisteritzako ikaslea gauez umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **943742050/679237611 (goizez edo 20:00etatik aurrera)**
- Gizona peoi edo soldadore lanetarako prest. ☎ **686 10 85 52**
- Emakumea asteburuetan nagusiak zaintzeko prest. Gauez ere. ☎ **686 10 85 52**
- Tailerretako muntaia txikiak egingo nituzke etxetik. ☎ **637 46 70 42**
- Neska gaztea eskaintzen da garbiketa lanak egin edo ume eta nagusiak zaintzeko. ☎ **660 75 74 59**
- Txistularia eta dantzaria den neska ospakizunetarako prest. ☎ **615 799 689**
- Mutila lanerako prest: pintura, nagusiak zaindu, garbiketa... ☎ **618 823 025**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 74 22 01 (Araceli)**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **666 81 49 16**
- Egun erdiz lan egingo nuke edozertan. ☎ **697431326**
- Mutila edozein lanetarako prest: harategian, eraikuntzan... ☎ **615 00 83 46**

**ESKAINTZA**

- Pertsonak behar dira barran lan egiteko eta sukalderako, asteburu eta jaiegunetan. ☎ **628 90 48 91**
- Sukaldari laguntzailea behar da. ☎ **943 12 12 62**
- Larunbatetan barran lan egiteko neska bat behar da. ☎ **670 654 921**
- Neska edo emakumea behar da baserrian bi ume zaintzeko 14:00etatik 18:00etara. Kotxea beharrezkoa. ☎ **943 74 28 51 (19:00etatik aurrera)**
- Eibarko ileapaindegi batean ileapaintzailea behar da ☎ **943 20 17 69**

## [ ETXEBIZITZAK ]

**SALMENTA**

- Etxea salgai Sigman. Dena kanpora begira, eguzkitsua, bi logela. ☎ **943 74 42 34 (gauez)**

**ALOKAIRUA**

- Pisua hartuko nuke alokairuan beste pertsona batekin. ☎ **943 74 85 97**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **626 91 49 04 (Rosa)**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **649 368 137**
- Pisua hartuko nuke alokairuan beste pertsona batekin. ☎ **943 74 85 97**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **690 701 118**

## [ GARAJEAK ]

- Garajea trasteroarekin salgai Pedro Muguruza Etorbidean. ☎ **943530039/645727911**
- Leku Ederren 4. solairuan garaje marraduna salgai. ☎ **660 042159**
- Garaje itxia salgai Urasandin. ☎ **943 74 00 95**
- Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ **943 74 27 78**
- Garaje itxia alokatzen da Leku Ederren. ☎ **943742034/ 639 353331**
- Garajea salgai Santa Ana 2 zenbakian. ☎ **615 70 98 08**

## [ LOKALAK ]

- Bulegoak egiteko lokalak alokatzen dira Sigmako Industrigunean. ☎ **679 184 554**
- Lokal txikia alokatuko nieke 18 urtetik gorako neskei. ☎ **667 838 858**

## [ SALEROSKETAK ]

- Golf GTI autoa salgai. SS-AG. Egoera onean. 950 euro. ☎ **620 27 61 28**
- Bizikleta estatikoa erosiko nuke. ☎ **639 39 08 08**
- Bikientzako kotxe-silla salgai. Inglesina markakoa. Silla, Grupo 0, zakuak, bubuilak... ☎ **636 129 543**
- Ordenagailu konpletoa salgai. 1024 RAM, 17 pulgadako TFT pantaila, 3 GHz... Prezio onean. ☎ **610 729 761**
- Citroen Xsara Coupe 1.6vtr autoa salgai. Gasolina. 90cv. 5 urte. ☎ **619 03 48 82**
- Piragua bat erosiko nuke. ☎ **635 71 55 03**
- Nintendo DS salgai. 2 jolasekin. Prezio onean. ☎ **661 42 60 77**
- Opel Kadet 1600 autoa salgai. Gasolinazkoa. SS-AL. Egoera onean. ☎ **639 39 08 08**
- Renault Laguna autoaren azken modeloa salgai. ☎ **659 627 356**
- Terraza edo parkerako eserlekuak salgai. ☎ **943 75 50 58**
- Fagor berogailu elektrikoa salgai 10 elementurekin. ☎ **943 74 44 46**
- Umearentzako kotxe-silla salgai. Urdin iluna. Egoera onean. ☎ **943 74 44 46**
- Hyundai H1 TD salgai. SS-BF. Ekipamentu osoarekin. 7.000 euro. ☎ **635 722 734**
- Motorra salgai. Suzuki RMX 250 Enduro. Egoera onean. ☎ **646 279 610**

## [ BESTERIK ]

- Motorrean ibiltzeko buruko kaskoa galdu nuen. Irekia eta gris kolorekoa. ☎ **652718719/943031943**
- Urtebeteko umearen eskularruak galdu ditut. ☎ **943 74 12 28**
- Urrezko belarritako bat galdu nuen kiroldegian. Perlita urdina eta txuria dauka. ☎ **943 74 04 34**
- Urrezko belarritako bat galdu nuen kiroldegian. Perlita urdina eta txuria dauka. ☎ **943 74 04 34**

# [ZORIONAK]



Zorionak **Ane Kortaberria Bilbao** azaroaren 15ean 4 urte egin zenituelako.



Zorionak **Unai** hilaren 19an 5 urte egin zenituelako. Ion, Asier, Olatz, Aitor, Haritz, eta familiakoak.



Zorionak **txapeldun!** Espero dugu ondo pasatu izana. Muxu handi bat guraso eta Iratiren partez.



Zorionak **Aitzol** gaur 5 urte egin dituzulako. Guraso eta aitxitxa eta amamen partez muxu bat.



Zorionak **Dora** hilaren 23an 75 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



Zorionak **Christian** igandean 6 urte egingo dituzulako. Ander eta familiako guztien partez.



Zorionak **Telmo** zure 2. urtebetetzean.



Zorionak **Hodei** zure 1. urtebetetzean. Aita, ama eta bereziki, Anerren partez.



Zorionak **Naroa** zure 1. urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, Ibon eta Naiararen partez.



Zorionak gure etxeko sorgintxoari, bere 4. urtebetetzean. Amama, aitxitxa eta birramon Maria.



Zorionak **Nora eta Koldo** 4 eta 2 urte beteko dituzuelako. Familiako guztien partez.



Zorionak **Ruben eta Pablo** hilaren 20an eta 21ean zuen eguna izan zelako. Plaentxikoen, familiakoen eta Pilarren partez.



Zorionak **Nerea eta Aimar** azaroaren 27an 4 urte beteko dituzuelako. Gurasoen partez.




Pintxoetan aukera zabala

P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



MEKANOSA

Errosario, 30

Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]




27 igandea FOTERO

## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

| | |
|---|---|
| 25 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 26 | Fernandez *(* Goizez Etxeberria Errosario)* |
| 27 | Fernandez |
| 28 | Yudego |
| 29 | Zabaleta |
| 30 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 1 | Ibañez |
| 2 | Bidasolo |

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
*Pesa: 902 10 12 10*

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
*PESA: 902 10 12 10*

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

## [ 25 BARIXAKUA ]

**22:00 BIDEO FORUM-A**
Filmea: "La puta y la ballena"
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Hizlaria: Eskarne Larrinaga
Antolatzailea: haizea Emakume Taldea

## [ 26 ZAPATUA ]

**11:00 BIDE EGINEZ PROZESUAREN II. BATZARRA**
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Ondoren bazkaria Kimetz Elkartean

**15:00 ZORIONTSU BIZITZEKO OTOITZ EGITEN IKASI**
Gaia: Zer da otoitz eta bizi lantegi edo tailer bat
Parrokiako lokaletan

**19:00 PARROKIKO ABESBATZAREN KONTZERTUA**
Santa Zezilia Eguneko emanaldia
19:00etako mezatan




bertsolari txapelketa nagusia
Sarrera: 25 €
Autobus-txartela: 12 €
Bazkari-txartela: 18 €
abenduak 18
barakaldo/BEC
05
**Sarrerak eta txartelak**
ELGOIBARKO IZARRAn salgai.
Ubitarte 4, behea • Tel.: 943 74 16 26
ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

RIP
PUNKAREN 25 URTEKO HISTORIA BIZIA
DVD Erreportajea-elkarrizketak
Kontzertuak
Argazki galeria
Bestelakoak
CD Argitaragabeko 14 abesti
DVD-CD SALGAI

www.hotsak.com

## [ 27 DOMEKIA ]

16:30 **TXOTXONGILO IKUSKIZUNA**
Lana: "Juego de sombras"
Taldea: Hunan Puppet and Shadow Art Troupe txotxongilo taldea (Txinatarrak)
Herriko Antzokian

## [ 1 EGUENA ]

11:00 **HIESAREN EGUNA**
Goizean zehar, mahai informatiboak. Arratsaldean kontzentrazioa Plaza Handian
Antolatzaileak: Errotatxo Elkartea

17:00 **JOSTAILUEN ERAKUSKETA GIDATUA**
Kultur Etxeko sotoan
20:00ak arte
Antolatzaileak: Atxutxiamaika A.T eta Elgoibarko Izarra K.E.

## [ 2 BARIXAKUA ]

17:00 **JOSTAILUEN ERAKUSKETA GIDATUA**
Kultur Etxeko sotoan
20:00ak arte
Antolatzaileak: Atxutxiamaika A.T eta Elgoibarko Izarra K.E.

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN

«Cinderella man»
25, barixakua: 22:15
26, zapatua: 19:30-22:15
27, domekia: 19:30-22:15
28, astelehena: 22:15
«El Mundo a cada rato» (Z.K.)
1, eguena: 22:15

**EIBAR,** UNZAGA
«Harry Potter»
25, barixakua: 19:30-22:15
26, zapatua: 17:00-19:30-22:15
27, domekia: 17:00-19:30-22:15
28, astelehena: 19:30-22:15
29, martitzena: 19:30-22:15
30, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR,** RIALTO
«Virgen a los 40»
25, barixakua: 19:30-22:15
26, zapatua: 17:00-19:30-22:15
27, domekia: 17:00-19:30-22:15
28, astelehena: 19:30-22:15
29, martitzena: 19:30-22:15
30, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## SINOPSIAK

### «Cinderella man»

Zuzendaria: Ron Howard.
Antzezleak: Russell Crowe, Renée Zellweger, Paul Giamatti.
Depresio Handian, Amerikako Estatu Batuek sekula bizi izan duen krisi ekonomiko larrienean, New York-en bizi zen James J. Braddock boxeolariaren istorioa kontatzen du filmak. "Cinderella man" gisa ezagunagoa zen boxeolaria bere familia aurrera ateratzeko sartu zen gizon hau boxeoan eta txapeldun handien aurka neurtu zituen indarrak. Hori gutxi balitz hiritarren aurrean heroi bilakatu zen, munduari erakutsi baitzion zer egiteko gai den gizon bat bigarren aukera bat eskuratu eta bere familia aurrera ateratzeko.

### «El mundo a cada rato» (Z.K.)

Zuzendaria: Patricia Ferreira, Pere Joan Ventura, Chus Gutiérrez, Javier Corcuera eta Javier Fesser.
Unicef erakundearen bost lehentasunak lantzen dituzte beste horrenbeste zuzendarik, bakoitzak film labur batean. Honakoak dira Unicef-en lehentasunak: neskatxen heziketa, Hies-aren aurkako borroka, indarkeria, esplotazioa eta diskriminazioaren aurkako babesa. Indiako hegoaldean bizi den umezurtz bat, erdi espainiarra erdi guinearra den emakume espainiar bat, estolderietan bizi den hiru urteko neskatxa bat, amazoniako familia bat eta Senegaleko 7 urteko neskatxa bat dira protagonistak.



**1974** urteko erretratu zahar hau **Juan Jose Arazolazak** laga digu. Plaza Handian aterata dago, Baltasar Pilotazale Elkarteak antolatutako San Bartolome jaietako pilota txapelketa finalean. Giro ederra egoten zen, eta herriko plaza dotore jartzen zen. Urte honetako irabazlea J. M. Agirrebeña izan zen. Argazkian ikusten dugu trofeoa jasotzen. Gogora ditzagun zein diren bertan ageri direnak.

Atzean, ezkerretik eskumara: **Juan Mari Mugerza** (orduko Baltasar Elkarteko presidentea), **Ramon Uriguen "Etxegiña" (†), Cayetano** eta **Boni Elordieta anaiak (Ereinokoak), ezezaguna, Pedro Eizagirre (†), Santi Ibarra (†), Santi Osoro (†), Pedro Azpiazu** (Eibar), **Martin Agirre** (Itziar), **Isidro Gurrutxaga** (Mendaro) **(†), Genaro Bilbao (†)** eta **Luis Etxeberria "Parapan"**. Eserita: **Benito Irazabalbeitia** (Osintxu) eta **Juan Bollar (†).** Aurrean: **Jaime Arrese** (alkatea) **(†), Jabier Galdos** (Baltasar Elkarteko delegatua) eta **Jesus Mari Agirrebeña "Arostegi"** (eskuz-eskuzko txapelduna).



*Lorea Etxabe Azkue*

2003ko azaroaren 26an hil zen
30 urte zituela

*Edur zuritxan hazitxako*
*lore gorrixa ziñan.*
*Urtu eraitxen zendun*
*inguruko hotza,*
*eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixao*
*zure berua igarriko,*
*baña hementxe gerauko da*
*zure arnasian aztarnia,*
*botatako sustraixen gañian.*

**Zure familia eta lagunak**

**Bere alde urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 26, arratsaldeko, 19:00etan San Bartolome Parrokian.**





autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

# Bilatu eta aurkitu: Nola bilatu Interneten?

Informazio-iturri itzela da Internet, baina nola bilatzen da **enpresarako erabilgarri izan daitekeen informazioa**? **Bezeroei, hornitzaileei, eskariei eta eskaintzei buruzko informazioa,** gure **lehiakideen jarduerei buruzkoak**, dauden **dirulaguntzak** eta horiei buruzko informazioa... ezagutzea gure **negoziorako mesedegarri izan daiteke.**

**Deba Barrena**
azaroak 29
ELGOIBAR
Makina Erremintaren Institutua (IMH)

Ordutegia:
**18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:
**943 747 314**
**www.miramondigital.com**
**cursos@miramondigital.com**

Antolatzailea:
Miramon
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco
Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa
:-) euskadi
e-gipuzkoa
SPRI





# Pirritx eta Porrotx

## maite zaitut

**Abenduak 26, astelehena**
**16:30 eta 18:30etan**
**HERRIKO ANTZOKIAN**

**SARRERAK SALGAI**
**honako leku hauetan bakarrik:**
1. saioa: LOPEZ eta SUGAR
2. saioa: GOROSTIZA eta PITXINTXU
Gaztetxoek 3 euro eta helduek 6 euro

Euskara Saila
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

**Ongi**
Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40

## Isolamenduak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldolekunberri@hotmail.com
www.excavacioneslekunberri.com